

## Berriup-eko 10 proiektu finalisten artean 2 startup Mondragon Team Academy-koak izan dira.

2017/02/22

Otsailaren 17an, ostirala, Tabakalera(Donosti) Berriup-eko Aukeraketa komitea ospatu zen. 10 proiektu finalista aurkeztu ziren, lenengo txanda batetan 87 startup aurkeztu zirelarik (ikus [notiziaren link-a](#)).

Ekintzaileek beraien proiektuak aurkeztu zituzten, horrela mentoreek erabaki dezaten zeintzuk parte hartuko duten Berriup azelerazio programaren laugarren edizioan. Mentoreez gain, Berriup-ek ekosistema ekintzailearekin lotura duten beste pertsona batzuk gonbidatu zituen eta talde ekintzaileek beren startup-ak 80 pertsonen aurrean aurkeztu zituzten.

10 proiektuetatik 2 startup Mondragon Team Academy-koak ziren (MONDRAGON UNBERTSITATE-ko Enpresagintza fakultateko LEINN graduako ekintzaileak):

1) Lehenik Jorge Maylin eta Iñaki Aranburu igo ziren taula gainera, beren Virtualia World proiektua aurkezteko, bidaiak eta errealitate birtualaren inguruko proiektua. Virtualia World errealitate birtualean bidaien inguruko plataforma bat da. Jorge eta Iñaki 2016an graduatu ziren LEINNen LEMON ekipoarekin (LEINN 4th Generation), Bidasoako laborategian. Proiektuaren inguruko informazio gehiago [link](#).

2) Gero, Uxue Irigoyen eta Alaia Amubietak Aldazank proiektua aurkeztu zuten, berdintasuna bultzatzeko plataforma bat. Uxue eta Alaiak beren ikasketa prozesua Oñatiko laborategian bizi izan dute Ohana ekipoaren barne (LEINN 5th Generation, laugarren urteko ekipoa gaur egun). [Link-a aurkezpenari](#).

Atzo beren startup proiektuak aurkeztu zituzten gure ekintzaile taldeek aurrera pauso garrantzitsu bat eman dute Mondragon Team Academy-ren komunitatean honako arrazoi hauegatik:

- Bi ekipoak disziplinarreko perfilez osaturik daude, hau da, leinnerretaz gain ekintzaileak diren beste perfilek osatzen dituzte ekipo hauek, perfil osagarriak (teknologikoak, garatzaileak, langile sozialak, etabar...).

- Negozio berritzaileak garatzeko gaitasuna eta ideia bat aurreragoko estadio batetara bultzatzeko gaitasunak erakusten digu gure leinnerren kompetentzien garapena ona izaten ari dela eta gure leinnerren gure ekosistema ekintzailean paper garrantzitsu bat jokatzeko ari direla.

Egun polita eta ilusioz beterikoa izan zen. Ez dakigu proiektuak aurrera egingo duten ala ez Berriup-en, baina ekipoak beren aurpegi onena agertu zuten aurrera egiteko. Talde ekintzaileak animatu beren ametsak egi bihurtzeko eta negozio modeloak diseinatzea gure ingurunea eta erakundeak aldatzeko. Zorionak denoi. Aurrera beti aurrera!

